



DIRU-LAGUNTZEN PROGRAMEI BURUZKO EBALUAKETA 2016

LANBIDE

1. Laguntzak pertsona ekintzaileei	2
2. Txanda-Kontratua	4
3. Familia eta lana bateragarri egiteko laguntzak.....	5
4. Desgaitasuna duten pertsonak Enplegu Zentro Berezietan laneratzea sustatzeko laguntza eta diru-laguntza publikoak.....	6
5. Gizarte Segurantzako kuotak ordaintzeko diru-laguntza, langabezia-prestazioa kobratzen duten onuradunentzat. Ordainketa bakarra	8
6. Desgaitasuna duten pertsonen enpresa arruntetan kontratu mugagabeak egiteko diru-laguntza	9
7. Enplegua sustatzeko tokiko laguntzak. Tokiko garapena eta enplegu-sorrera sustatzeko proiektuak	10
8. Laneratze-enpresentzako laguntzak	11
9. Sintel enpresako langileentzako laguntzak	13
10. Enplegu Zentro Berezietan lanbide-jarduerari laguntzeko unitateak	15
11. Lehen Aukera programa.....	16
12. Eusko Jaurlaritzaren Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailaren titulartasun juridikoko lanbide-heziketako zentro publikoekin enplegu-eskatzaileak laneratzeko prestakuntza-ekintzak kudeatzeko mandatua	17
13. Laneratzeko prestakuntza-baliabideak, kontratatzeko konpromisoa dakarren prestakuntza eskaintzeko.....	18
14. Lehentasunez langile langabeentzat diren prestakuntza-ekintzak.....	20
15. HEZIBI programa – Gazteek prestakuntza eta lana aldizkatzea	22
16. HOBETUZ. Lehentasunez Euskal Autonomia Erkidegoko langile landunentzat diren enplegurako prestakuntzako diru-laguntzen 2016ko ekitaldirako deialdia	23
17. HOBETUZ. Euskal Autonomia Erkidegoko enpresek garatzen dituzten prestakuntza-ekintza estrategikoetarako diru-laguntzen 2016ko ekitaldirako deialdia.....	25
18. Diru-sarrerak bermatzeko errenta eta etxebizitzarako prestazio osagarria	27
19. Euskal enpresek kanpoan dituzten lantokietan 35 urtetik gorako langabeak kontratatzea	28
20. Euskal enpresek kanpoan dituzten lantokietan gazte langabeak praktikak egiteko kontratatzea.....	30
21. Lagundutako enplegua, desgaitasuna duten pertsonak lan-merkatu arruntan txertatzeko neurri gisa	32



1.- Izenburua

Laguntzak pertsona ekintzaileei

2.- Araua

Ekintzaileei laguntzeko 2016ko ekitaldirako diru-laguntzen deialdia, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuaren Administrazio Kontseiluak 2016ko apirilaren 14ko bilkuran hartutako Erabakiaren bidez onartutakoa (2016ko apirilaren 15eko EHAA).

3.- Diru-laguntzen Programaren azalpen laburra eta helburuak

EAEko ekintzaileentzako diru-laguntzak. Programak hiru laguntza-lerro ditu:

1. Ekintzaile izan daitezkeen pertsonentzako laguntzak, enpresa-ideiak sortu, aztertu eta egituratzeko lanak egin ditzaten erabateko arduraldian, ekintzaileentzako tokiko proiektuen esparruan (Enpresa-ideiak lantzeko laguntzak).
2. Negozio-ideia zehaztua duten ekintzaileek enpresa-proiektu berriak abian jar ditzaten bultzatzeko laguntzak, ekintzaileentzako tokiko proiektuen esparruan (Enpresa-proiektu berriak abian jartzeko laguntzak).
3. Enpresa-jarduera bati ekin dioten pertsonen jarduera hori sendotzeko laguntzak (Enpresa-jarduerak sendotzeko laguntzak).

4.- Lortutako emaitzak, aurrekontu programarekin lotutako magnitudeak eta eragina gizartearen

Deialdi honen xede diren laguntzak finantzatzeko baliabide ekonomikoen zenbatekoa 4.000.000 eurokoa da; horietatik 2.000.000 euro 2016ko ekitaldiko ordainketa-kredituari dagozkio, eta 2.000.000 euro 2017ko ekitaldiko konpromiso-kredituari.

Helburu gisa ezarritako emaitzak:

Aurrekontua (2016ko kreditua): 3.000.000 € (2016koa eta aurreko urteetan adostutakoa)

Sortutako enpresak: 300

Laguntza ekonomikoa jasoko duten ekintzaileen kopurua:

1) Enpresa-ideiak lantzeko laguntzak: 300

2) Enpresa-proiektu berriak abian jartzeko laguntzak: 240

3) Enpresa-jarduerak sendotzeko laguntzak: 1.160

Erakunde laguntzaileak: 31

Izandako emaitzak:

Gauzaturako aurrekontua: 2.118.501 € (2016koa eta aurreko urteetan adostutakoa)

Sortutako enpresak: 148

Laguntza ekonomikoa jaso duten ekintzaileen kopurua:

1) Enpresa-ideiak lantzeko laguntzak: 187



2) Enpresa-proiektu berriak abian jartzeko laguntzak: 148

3) Enpresa-jarduerak sendotzeko laguntzak: 852

Erakunde laguntzaileak: 32

Emaitzak espero bezain onak izan ez diren arren, programa baliagarritasun eta gizarte-eragin handikoa da, besteren kontura oraindik enplegu gutxi sortzen ari den garaiotan lanpostuak sortzeko aukera ematen baitu, kontuan izanik, gainera, gazteentzako programa dela, eta kolektibo horrek gainerakoen batezbestekoa baino langabezia-tasa altuagoa duela.



1.- Izenburua

Txanda-Kontratua

2.- Araua

Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuaren Administrazio Kontseiluak 2016ko apirilaren 14ko bilkuran hartutako Erabakiaren bidez onartutako deialdia (2016ko apirilaren 15eko EHAA).

3.- Diru-laguntzen Programaren azalpen laburra eta helburuak

Programa honen helburua da Lanbiden izena emana duten 30 urte baino gutxiagoko gazteen eta iraupen mugatuko kontratuarekin enpresa batean lanean diharduten gazteen enplegua sustatzea. Horretarako, gazteekin txanda-kontratuak egiten dituzten enpresak laguntzen dira diruz. Nahitaezko baldintza da kontratuak lanaldi osokoak eta mugagabeak izatea, edo bestela, iraupen mugatuko kontratuen kasuan, bertan jasotzea hasierako konpromisoa, hau da, kontratua amaitzean edo lehenago, kontratua mugagabe bihurtzeko asmoa erakustea. Bestalde, txanda-kontratupeko langile gisa kontratatutako pertsonak gutxienez 12.000 €-ko ordainsaria jaso beharko du urtero. Kontratu bakoitzeko laguntza 6.000 €-koa da.

4.- Lortutako emaitzak, aurrekontu programarekin lotutako magnitudeak eta eragina gizartean

Deialdi honen xede diren laguntzak finantzatzeko baliabide ekonomikoen zenbatekoa 5.496.000 eurokoa da; horietatik 3.297.600 euro 2016ko ordainketa-kredituari dagozkio, eta 2.198.400 euro 2017ko konpromiso-kredituari.

Helburu gisa ezarritako emaitzak:

Aurrekontua: 3.297.600 €

Kontratatutako pertsonak: 900

Izandako emaitzak:

Gauzatutako aurrekontua: 186.000 €

Kontratatutako pertsonak: 31

Emaitzak oso txarrak izan dira, baina gure ustez litekeena da enpresek behar beste denbora eduki ez izana, hainbat urtean deialdia egin ez delako eta oraingoan lehen eskatzen ziren baldintzetatik oso desberdinak diren beste batzuk eskatu direlako, txanda-kontratuen (eta kontratu osagarrien) plangintza deialdi berriaren baldintzetara egokitzeko. Espero da hemendik aurrera, enpresak baldintza berrien jakitun izanda, emaitzak nabarmen hobetuko direla.



1.- Izenburua

Familia eta lana bateragarri egiteko laguntzak

2.- Araua

177 /2010 Dekretua, ekainaren 29koa, familia eta lana bateragarri egiteko laguntzei buruzkoa (IV. kapitulua). 31/2015 Dekretua, martxoaren 17koa, familia eta lana bateragarri egiteko laguntzei buruzko dekretua aldatzen duena.

2016ko ekitaldirako baliabideen esleipena, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuaren Administrazio Kontseiluak 2016ko apirilaren 14an hartutako Erabakiaz onartua (2016ko apirilaren 21eko EHAA).

3.- Diru-laguntzen Programaren azalpen laburra eta helburuak

Langabe gisa izena emanda dauden pertsonak kontratatzeko diru-laguntzak emango dira, eszedentzia hartu duten edo lanaldia murriztu duten eta besteren kontura lan egiten duten langileak, kooperatiba-sozietateetako bazkide langileak edo laneko bazkideak ordeztuko. Eszedentzia edo lanaldi murriztua hartu ahal izango dira, betiere, senide hauek zaintzeko:

- Seme-alabak, 27.1.a) artikuluan ezarritakoaren arabera.
- Mendekotasuneko edo muturreko osasun-larrialdiko egoeran dauden senideak, 27.1.b) artikuluan ezarritako ahaidetasun-harremana dutenean.

Era berean, diruz lagunduko da aldez aurretik lanaldi partzian kontratatutako langile baten lanaldia luzatzea, eszedentzia edo lanaldi-murrizketa duen beste langile baten lanpostua betetzeko bada.

4.- Lortutako emaitzak, aurrekontu programarekin lotutako magnitudeak eta eragina gizartean

Laguntza hauek finantzatzeko baliabide ekonomikoen zenbatekoa 2.200.000 eurokoa da 2016ko ekitaldirako.

Helburu gisa ezarritako emaitzak:

Aurrekontua (2016ko kreditua): 2.200.000 €

Diruz lagundutako kontratazioak: 1.800

Izandako emaitzak:

Gauzatutako aurrekontua: 1.624.374 €

Diruz lagundutako kontratazioak: 1.461

Programaren baliagarritasuna eta gizarte-eragina ebaluatzeko, enplegu-eskatzaille gisa izena emanda dauden kontratatutako langileen kopuruari erreparatu besterik ez dago, eta kontratazio hauek programako enpresa onuradunetan izan duten eragin positiboari. Izan ere, kontratazio horiei esker, alde batetik, langileen familia-bizitza eta lana bateragarri egitea lortu da, eta, bestetik, langile berriak kontratatu dira eta enpresa onuradunen sinergiak mantendu.



1.- Izenburua

Desgaitasuna duten pertsonak Enplegu Zentro Berezietan laneratzea sustatzeko laguntza eta diru-laguntza publikoak

2.- Araua

Agindua, 1998ko urriaren 16koa, Lan eta Gizarte Segurantza Ministerioarena, desgaitasuna duten pertsonak Enplegu Zentro Berezietan laneratzea sustatzeko laguntza eta diru-laguntza publikoak emateko oinarri arautzaileak ezartzen dituena.

2016ko ekitaldirako baliabideen esleipena, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuaren Administrazio Kontseiluak 2016ko martxoaren 16ko bilkuran hartutako Erabakiaren bidez onartutakoa (2016ko martxoaren 18ko EHAA).

3.- Diru-laguntzen Programaren azalpen laburra eta helburuak

Desgaitasuna duten langileen laneratzea, integrazio pertsonala eta gizarteratzea erraztea, eta, aldi berean, desgaitasuna duten ahalik eta pertsona gehien lan-erregimen arruntean txertatzea. Eginkizun horrekin batera, desgaitasuna duen langile bakoitzari bere baldintza fisiko, psikiko edo intelektualetara egokitutako lanpostu bat eskaintzen zaio.

4.- Lortutako emaitzak, aurrekontu programarekin lotutako magnitudeak eta eragina gizartean

Laguntza hauek finantzatzeko baliabide ekonomikoen zenbatekoa 30.000.000 eurokoa da 2016ko ekitaldirako.

Helburu gisa ezarritako emaitzak:

Aurrekontua (2016ko kreditua): 30.000.000 €

Kontratututako pertsonak (urteko batez besteko langile-kopurua): 7.500

Zentro-kopurua: 84

Izandako emaitzak:

Gauzatutako aurrekontua: 29.989.835 €

Kontratututako pertsonak (urteko batez besteko langile-kopurua): 8.500

Zentro-kopurua: 78

2016. urtearen amaieran, Euskadin Enplegu Zentro Berezi gisa kalifikatutako 78 enpresa daude jardunean, eta guztira desgaitasuna duten 8.959 langileri ematen diete lana. Horrez gain, langile bakoitzarentzat prestakuntza eta laguntzako ekintzak, ekintza terapeutikoak eta gizarteratzea eta laneratzea sustatzekoak eskaintzen dituzte. Bestalde, lan-arlokoak, laguntzakoak nahiz administratiboak diren eginkizunak betetzeko, desgaitasunik ez duten 1.022 langile dituzte. Beraz, guztira 9.981 langile ari dira enpresa horietan lanean.



Desgaitasuna duten ia 9.000 pertsona lan-arloan jardunean eta babestuta egoteak oihartzun eta eragin sozial handia du, batez ere desgaitasuna duten pertsonen familietan, eta, gainera, langileei berei ongizatea ematen die.



1.- Izenburua

Gizarte Segurantzako kuotak ordaintzeko diru-laguntza, langabezia-prestazioa kobratzen duten onuradunentzat. Ordainketa bakarra

2.- Araua

Agindua, 1994ko apirilaren 13koa, Lan eta Gizarte Segurantzaren Ministerioarena, langabezia-prestazioa ordainketa bakarreko modalitatean jasotzen dutenei Gizarte Segurantzako kuota osoa ordaintzeko diru-laguntzak emateko oinarri arautzaileak ezartzen dituen, 1044/1985 Errege Dekretuaren 4.2 artikuluan ezarritakoari jarraituz.

31/2015 Legea, irailaren 9koa, autoenpleguaren arloko araudia aldatu eta eguneratzen duena eta lan autonomia eta gizarte-ekonomia bultzatu eta sustatzeko neurriak hartzen dituena.

Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuaren Administrazio Kontseiluak 2016ko martxoaren 16ko bilkuran onartutako deialdia (2016ko martxoaren 18ko EHAA).

3.- Diru-laguntzen Programaren azalpen laburra eta helburuak

Diru-laguntzaren xedea da lan elkartuko kooperatiba batean edo lan-arloko sozietate batean lanbide-jarduerak egitea bazkide langile gisa, eta hartzaileak izango dira merkataritza-entitateak eratzen eta abian jartzen dituzten langabeak nahiz norbere kontura dihardutenak. Horretarako nahitaezko baldintza izango da SEPetik langabezia-prestazioa jasotzea, prestazioaren guztizko zenbatekoaren egungo balioaz, ordainketa bakarreko modalitatean.

Horretarako, Gizarte Segurantzako kuotak ordaintzeko diru-laguntzak ematen zaizkie prestazio osoa jasotzeko eskubidea erabili baina oraindik jaso ez duten aipatutako langileei, haiei beren lanbide-jardueraren lehenengo urratsetan laguntzeko asmoz.

4.- Lortutako emaitzak, aurrekontu programarekin lotutako magnitudeak eta eragina gizartearen

Laguntza hauek finantzatzeko baliabide ekonomikoen zenbatekoa 500.000 eurokoa da 2016ko ekitaldirako.

Helburu gisa ezarritako emaitzak:

Aurrekontua (2016ko kreditua): 500.000 €

Izandako emaitzak:

Gauzatutako aurrekontua: 459.136 €

Prestazioa ordainketa bakarrean jaso duten pertsonak: 595

Pertsona gehiagok jaso dute prestazio hau, eta, beraz, pertsona gehiagok kapitalizatu dute beren langabezia-prestazioa autoenpleguaren bidez jardunean hasteko.



1.- Izenburua

Desgaitasuna duten pertsonen enpresa arruntetan kontratu mugagabeak egiteko diru-laguntza

2.- Araua

Deialdia, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuaren Administrazio Kontseiluak 2016ko martxoaren 16ko bilkuran onartua eta maiatzaren 11ko 1451/1983 Errege Dekretuak (II. kapitulua) eta Lan eta Gizarte Segurantzaren Ministerioaren 1994ko apirilaren 13ko Aginduak arautua, 2016ko martxoaren 18ko EHAAn (54. zk.) argitaratu zen, eta eskaerak aurkezteko epea abenduaren 31n amaitu zen.

3.- Diru-laguntzen Programaren azalpen laburra eta helburuak

Programa honetan hartzen diren neurrien helburua da jatorrizko desgaitasuna nahiz gerora agertutakoa duten pertsonen enpresa arruntetan lanpostu bat lortzen laguntzea. Bestela esanda, enpresei diru-laguntzak ematen zaizkie desgaitasuna duten pertsonak kontratatuzko.

4.- Lortutako emaitzak, aurrekontu programarekin lotutako magnitudeak eta eragina gizartearen

Laguntza hauek finantzatzeko baliabide ekonomikoen zenbatekoa 500.000 eurokoa da 2016ko ekitaldirako.

Helburu gisa ezarritako emaitzak:

Aurrekontua (2016ko kreditua): 500.000 €

Kontrataturako pertsonak: 170

Izandako emaitzak:

Gauzatutako aurrekontua: 451.467 €

Kontrataturako pertsonak: 140

Emaitzak aurreko ekitaldikoak baino hobeak izan dira. 2016. urtean, desgaitasuna duten 140 pertsonaren kontratazio mugagabeari lagundu zaio diruz. Horri esker, egoera ekonomiko zailari ez ezik bestelako zailtasunei ere aurre egin behar dien kolektibo bati lan-merkatuan sartzea erraztu zaio.



1.- Izenburua

Enplegua sustatzeko tokiko laguntzak. Tokiko garapena eta enplegu-sorrera sustatzeko proiektuak

2.- Araua

Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuaren Administrazio Kontseiluak 2016ko ekainaren 15eko bilkuran onartutako deialdia, 2016ko ekainaren 16ko EHAA (114. zk.) argitaratu zena.

3.- Diru-laguntzen Programaren azalpen laburra eta helburuak

Deialdi honen helburua da Euskal Autonomia Erkidegoko tokiko erakundeei laguntzak ematea, jardueraren xede den lurraldearen garapen sozioekonomikoa eta modernizazioa bultzatze aldera enplegua sortzeko proiektuak martxan jar ditzaten, Eusko Jaurlaritzaren 2014-2016ko aldirako enplegu-planeari ezarritako enpleguaren aldeko tokiko ekintzen helburuarekin eta emakumeen eta gizonen berdintasunaren printzipioarekin bat etorritik.

Deialdi honekin lortu nahi den azken helburua da Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuan izena emandako langabeen enplegarritasuna hobetzea.

4.- Lortutako emaitzak, aurrekontu programarekin lotutako magnitudeak eta eragina gizartean

Laguntza hau finantzatzeko baliabide ekonomikoen zenbatekoa 21.000.000 eurokoa da; horietatik 11.000.000 euro 2016ko kreditu arruntari dagozkio, eta 10.000.000 euro 2017ko konpromiso-aurrekontuari.

Helburu gisa ezarritako emaitzak:

Aurrekontua (2016ko kreditua): 16.985.271 € (2016koa eta 2015ean adostutakoa)

Ekintzak aurkeztuko dituzten udalak eta/edo mankomunitateak: 40

Lana lortutako pertsonak: 1.200

Izandako emaitzak:

Gauzatutako aurrekontua: 12.915.492 €

Ekintzak aurkeztu dituzten udalak eta/edo mankomunitateak: 50

Lana lortutako pertsonak: 2.560

Emaitzen analisia erabat positiboa da, tokiko eta eskualdeko enplegu-planetan izandako parte-hartzea eta kontratatutako pertsonen kopurua espero zena baino handiagoa izan baita.



1.- Izenburua

Laneratze-enpresentzako laguntzak

2.- Araua

44/2007 Legea, abenduaren 13koa, laneratze-enpresen erregimena arautzen duena.

Deialdia, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuaren Administrazio Kontseiluak 2016ko martxoaren 16ko bilkuran onartua eta 2009ko maiatzaren 4ko Aginduak eta azaroaren 11ko 182/2008 Dekretuak arautua, 2016ko martxoaren 18ko EHAAn argitaratu zen.

3.- Diru-laguntzen Programaren azalpen laburra eta helburuak

Eusko Jaurlaritzak gizarte-bazterketaren aurka borrokatzeko eta kolektibo ahulenei, bazterketa-egoeran daudenei edo baztertuak izateko arriskuan daudenei lan-merkatu arruntean sartzea errazteko tresna gisa erabiltzen ditu laneratze-enpresak, pertsoneri lagunduz haien laneratzea eta gizarteratzea bultzatzeko.

Laneratze-enpresak sortzeko laguntzak erakunde sustatzaileentzako diru-laguntzak dira, dagozkion enpresak sortzea bideragarria den ala ez aztertzeko merkatu-ikerketak egin ditzaten.

Laneratze-enpresen iraupena sustatzeko laguntzak hauek dira:

- Inbertsioak aktibo finkoetan.
- Laneratze-prozesuan dauden pertsonentzako lanpostuak sortu eta mantentzea.
- Produkzioari laguntzeko teknikarien lanpostuak sortu eta mantentzea.
- Laneratzeari laguntzeko teknikari espezializatuen lanpostuak sortu eta mantentzea.
- Merkatu-ikerketak egiteko laguntza teknikoak.
- Prestakuntza.

4.- Lortutako emaitzak, aurrekontu programarekin lotutako magnitudeak eta eragina gizartean

Deialdi honen xede diren laguntzak finantzatzeko baliabide ekonomikoen zenbatekoa 8.200.000 eurokoa da guztira; horietatik 1.500.000 euro 2016ko ordainketa-kredituari dagozkio, 2.600.000 euro 2017ko konpromiso-kredituari, 2.600.000 euro 2018ko konpromiso-kredituari eta 1.500.000 euro 2019ko konpromiso-kredituari.

Helburu gisa ezarritako emaitzak:

Aurrekontua (2016ko kreditua): 7.196.679 € (2016koa eta aurreko urteetan adostutakoa)

Laneratze-enpresa aktiboak: 40

Kontratatutako langileak: 440

Diru-laguntza jasoko duten laneratzea laguntzeko teknikariak: 120



Izandako emaitzak:

Gauzatutako aurrekontua: 6.160.705 €

Laneratze-enpresa aktiboak: 40

Kontrataturako langileak: 545

Diru-laguntza jaso duten laneratzea laguntzeko teknikariak: 146

Emaitzak positiboak dira, eta horrek sendotu egiten du bizi dugunaren moduko krisi orokor batean ahulenak diren pertsonak –bazterketa-egoeran daudenak edo baztertuak izateko arriskuan daudenak– laneratzea xede duen programa honen baliagarritasuna eta gizarte-eragina.



1.- Izenburua

Sintel enpresako langileentzako laguntzak

2.- Araua

Agindua, 2012ko apirilaren 18koa, Enplegu eta Gizarte Gaietako sailburuarena, otsailaren 26ko 196/2010 Errege Dekretuan xedatutako diru-laguntzak emateko prozedura arautzen duena.

196/2010 Errege Dekretua, otsailaren 26koa, laneratzea errazteko neurriak eta 2001eko martxoaren 8ko 76/2000 eta 2001eko uztailaren 31ko 25/2001 enplegu-erregulazioko espedienteen eraginpeko langileentzako laguntza bereziak ezartzen dituena (abenduaren 16ko 1783/2011 Errege Dekretuak aldatua).

2016ko ekitaldirako baliabideen esleipena, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuaren Administrazio Kontseiluak 2016ko martxoaren 16ko bilkuran hartutako Erabakiaren bidez onartutakoa (2016ko martxoaren 18ko EHAA).

3.- Diru-laguntzen Programaren azalpen laburra eta helburuak

Sintel enpresako enplegu-erregulazioko espedienteen eraginpeko langileen laneratzea erraztea eta haientzat laguntza bereziak ezartzea. Laguntzak hileror ordainduko dira, eta langile ohiekin sinatutako Gizarte Segurantzarekiko hitzarmen berezia ordaintzeko zenbateko gehigarriak izango dira.

Langileak ohiko erretiro-adina bete arte luzatu ahal izango dira laguntzak.

4.- Lortutako emaitzak, aurrekontu programarekin lotutako magnitudeak eta eragina gizartearen

Zenbatekoa 224.070 eurokoa da guztira; horietatik 24.870 euro 2016ko ordainketa-kredituari dagozkio, eta gainerakoa hurrengo ekitaldietako konpromiso-kredituari, 2017tik 2028ra bitartean.

Helburu gisa ezarritako emaitzak:

Aurrekontua: 154.415 € (2016koa eta aurreko urteetan adostutakoa)

Langileei hilean ordaindutakoaren batezbestekoa: 612,75 €

Izandako emaitzak:

Gauzatutako aurrekontua: 75.941 €

Langileei hilean ordaindutakoaren batezbestekoa: 395,52 €

Emaitzen azterketa, baliagarritasuna eta gizarte-eragina:

Lan-merkatuaren gaur egungo egoera dela-eta, laguntza hau eskatzeko eskubidea duten pertsonen eskubide hori erabiltzeko aukera handiagoa da orain krisiaren aurreko garaietan baino, eta, beraz, aurrekontuko aurreikuspenak egoera egonkorragoetan egingo liratekeenak baino handiagoak dira.



Horregatik ezarri dira kopuru horiek, hain zuzen ere kalkuluen arabera urtean 4 eskari gehiago egingo direlako. Bestalde, batez besteko kopuruak, pertsonako eta hileko, handitu egingo dela kalkulatu da, eskatzaile bakoitzaren gorabeherak desberdinak izaten direlako eta Gizarte Segurantzaren kuotak urtero igotzen direlako. Zorionez, 2016an eskaera bakarra jaso da, lau espero baziren ere.



1.- Izenburua

Enplegu Zentro Berezetan lanbide-jarduerari laguntzeko unitateak

2.- Araua

469/2006 Errege Dekretua, apirilaren 21ekoa, lanbide-jarduerarako laguntza-unitateak arautzen dituen Enplegu Zentro Berezien egokitzapen pertsonal eta sozialaren zerbitzuen eremuan.

1/2013 Legegintzako Errege Dekretua, azaroaren 29koa, desgaitasuna duten pertsonen eskubideei eta haien gizarteratzeari buruzko Lege Orokorraren testu bategina onartzen duena.

2016ko ekitaldirako diru-laguntzen deialdia, Euskal Autonomia Erkidegoaren esparruan Enplegu Zentro Berezetan lanbide-jarduerari laguntzeko unitateak finantzatzeko, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuaren Administrazio Kontseiluak 2016ko martxoaren 16ko bilkuran hartutako Erabakiaren bidez onartutakoa (2016ko martxoaren 18ko EHAA).

3.- Diru-laguntzen Programaren azalpen laburra eta helburuak

Lanbide-jarduerarako laguntza-unitateetan laguntzaileak kontratatzeko diru-laguntza bat ematea. Laguntza Unitateak talde multiprofesionalak dira, eta haien xedea da desgaitasuna duten eta laneratzeko zailtasun handiak dituzten Enplegu Zentro Berezetako langileei laguntzea lanpostu bat lortzen eta lanean irauteko prozesuan izan ditzaketen oztopoak eta eragozpenak gainditzeko. Enplegu Zentro Berezetako egokitze pertsonal eta sozialeko zerbitzuek desgaitasuna duten pertsonen erabateko gizarteratzea bermatzen dute.

4.- Lortutako emaitzak, aurrekontu programarekin lotutako magnitudeak eta eragina gizartean

Deialdi honen xede diren laguntzak finantzatzeko baliabide ekonomikoen zenbatekoa 4.000.000 eurokoa da 2016ko ekitaldirako.

Helburu gisa ezarritako emaitzak:

Aurrekontua (2016ko kreditua): 4.000.000 €

Laguntza-unitateak: 35

Desgaitasuna duten erabiltzaileak: 3.000

Izandako emaitzak:

Gauzatutako aurrekontua: 4.000.000 €

Laguntza-unitateak: 37

Desgaitasuna duten erabiltzaileak: 4.121

Baliabideen eskaria espero zena baino handiagoa izan denez, kreditu erabilgarria ez da nahikoa izan eskaera egin duten Enplegu Zentro Bereziei ordaintzeko, eta, azkenean, hainbanaketa bat egin behar izan da azken laguntzak kalkulatzeko.



1.- Izenburua

Lehen Aukera programa

2.- Araua

Deialdia, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuaren Administrazio Kontseiluak 2016ko apirilaren 14ko bilkuran hartutako Erabakiaren bidez onartutakoa (2016ko apirilaren 18ko EHAA).

3.- Diru-laguntzen Programaren azalpen laburra eta helburuak

Deialdiaren xedea da euskal enpresek praktikak egiteko kontratatzea titulua edo prestakuntza izanik ere beren tituluarekin lotutako lanetan esperientzia gutxi edo batere esperientziarik ez duten gazte langabeak (16 urtetik gorakoak eta 30 urtetik beherakoak). Hain zuzen ere, gazteen enplegarritasuna hobetu nahi da haiei lanbide-esperientzia emanaz eta lan-merkatuan sendoago txertatzeko aukera eskainiz.

4.- Lortutako emaitzak, aurrekontu programarekin lotutako magnitudeak eta eragina gizartearen

Deialdi honetan araututako laguntzak finantzatzeko baliabide ekonomikoen zenbatekoa 7.500.000 eurokoa da; horietatik 3.785.400 euro 2016ko ordainketa-kredituari dagozkio, eta 3.714.600 euro 2017ko kredituari.

Deialdi hau finantzatzeko baliabide ekonomikoak honela banatuko dira:

- 7.010.000- euro kontratu mugagabeak eta praktiketako kontratuak finantzatzeko. Aurrekontu horretatik, 3.785.400 euro 2016ko ordainketa-kredituari dagozkio, eta 3.224.600 euro 2017ko konpromiso-kredituari.
- 490.000 euro 4. artikuluan (4.3 eta 4.4 zenbakietan) zehaztutako zentro laguntzaileek enplegu-eskaintzak jaso, erregistratu eta kudeatu ditzaten, 2017ko ordainketa-kredituaren kargu.

Helburu gisa ezarritako emaitzak:

Aurrekontua (2016ko kreditua): 5.259.053 € (2016koa eta aurreko urteetan adostutakoa)

Laneko lehen esperientzia izango duten pertsonak: 1.500

Izandako emaitzak:

Gauzatutako aurrekontua: 1.756.650 €

Laneko lehen esperientzia duten pertsonak: 672

Emaitzak kalkulatu zirenak baino apalagoak izan dira; erakunde laguntzaileei pizgarri ekonomikoa ematen zitzaien 20 kontratu gauzatzen zituzten bakoitzeko, baina neurri horrek ez ditu esperotako emaitzak izan. Gainera, berrogeita hamar enpresak baino gehiagok, hautagaien zerrenda jaso ondoren, ez dute egiaztatu kontratuak formalizatu dituztenik, eta ehun bat eskaera gutxiago jaso dira.



1.- Izenburua

Eusko Jaurlaritzaren Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailaren titulartasun juridikoko lanbide-heziketako zentro publikoekin enplegu-eskatzaileak laneratzeko prestakuntza-ekintzak kudeatzeko mandatua

2.- Araua

Akordioa, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuaren eta Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailaren artean hitzartutako kudeaketa-mandatuari buruzkoa, lehentasunez EAEko langabeentzat den prestakuntza-programazioa gauzatzeko dena (2016ko irailaren 13ko EHAA, 174. zk.).

3.- Diru-laguntzen Programaren azalpen laburra eta helburuak

Profesionaltasun-ziurtagiriak lortzeko prestakuntza-ekintzak ematea, oro har, lan bat edo gehiago egiteko gaitasun kualifikatzaileak eskuratzeko eta langabeen kualifikazio formalaren maila areagotzeko xedez. Lehentasunez langabeentzat diren ekintzetan profesionaltasun-ziurtagirietan trebatzea.

4.- Lortutako emaitzak, aurrekontu programarekin lotutako magnitudeak eta eragina gizartean

Helburu gisa ezarritako emaitzak:

2016ko aurrekontua: 5.825.000 € (1.750.000 € eta aurreko urteetan adostutako kreditua)

Prestakuntza-ekintzak: 180

Prestakuntza jasoko duten pertsonak: 2.825

Izandako emaitzak:

2016an gauzatutakoa: 5.553.802 €

Prestakuntza-ekintzak: 168

Prestakuntza jaso duten pertsonak: 2.673

Kudeaketa-mandatu honen bidez, kalitate handiko lanbide-heziketa lortzen da profesionaltasun-ziurtagiriei dagokienez. Programa honetako prestakuntza industria-sektorerara bideratuta dago gehienbat, zentro publikoak sektore horretan daudelako hobekien hornituta (baita itunpeko zentro handiak ere). Era berean, langabeei gainerako jarduera ekonomikoen inguruko prestakuntza ematen zaie, baina maila apalagoan, arlo horretan eskaintza oparoa baitute deialdi arruntean parte hartzen duten zentro pribatuek. Itsasoko eta arrantzako sektorean, programa honi esker ematen da prestakuntza, arlo horretako bakarra baita.



1.- Izenburua

Laneratzeko prestakuntza-baliabideak, kontratatze konpromisoa dakarren prestakuntza eskaintzeko

2.- Araua

327/2003 Dekretua, lan-aukerak areagotzeko eta laneratzea sustatzeko neurriak arautzen dituena (aldataua).

2016ko ekitaldirako baliabideen esleipena, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuaren Administrazio Kontseiluak 2015eko maiatzaren 13ko bilkuran hartutako Erabakiaren bidez onartutakoa (2016ko ekainaren 6ko EHAA).

3.- Diru-laguntzen Programaren azalpen laburra eta helburuak

327/2003 Dekretuaren II. kapituluaren xedea da Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuko bulegoetan eta orientazio-zerbitzuen sarean hartu diren enplegu-eskatzailleak laneratzeko prestakuntza-ekintzak finantzatzera bideratutako diru-laguntzak arautzea, laneratzeko zailtasun handiak dituzten langabeek beren lanbide-prestakuntza hobetzeko tresnak izan ditzaten eta lan-merkatuan hobeto kokatu daitezen.

Kontratatze konpromisoa dakarren prestakuntza-modalitateak, abenduaren 23ko 327/2003 Dekretuaren 13.3.a) artikuluan araututa dagoenak, berebiziko garrantzia du laneratzeko neurri gisa, bai eta enpresek giza baliabideak –zehazki, lan-merkatuan ez dauden lanbide-profilak izanik laneratzeko berariazko kualifikazio osagarria behar duten pertsonak– kontratatzea xede duen berariazko prestakuntzak ere.

4.- Lortutako emaitzak, aurrekontu programarekin lotutako magnitudeak eta eragina gizartean

2016ko ekainaren 1eko 2418 Ebazpenaren arabera, deialdi honen xede diren laguntzak finantzatzeko baliabide ekonomikoen zenbatekoa 1.430.100 eurokoa da; horietatik 858.060 euro 2016ko aurrekontu arruntan jaso dira, eta 572.040 euro 2017rako adostutakoan.

Helburu gisa ezarritako emaitzak:

2016ko hasierako aurrekontua: 0

2017ko konpromiso-kreditua: 0

Izandako emaitzak:

2016an gauzatutakoa: 2.975.073 €

Prestakuntza-ekintzak: 31

Prestakuntza jaso duten pertsonak: 451



Egindako kontratuen kopurua: Gauzatzeko bidean

327/2003 Dekretua beste dekretu honek indargabetu du: 82/2016 Dekretua, maiatzaren 31koa, Euskal Autonomia Erkidegoan Enplegurako Lanbide Heziketa arautzen duena. Kontratatzeko konpromisoa dakarten ekintzak dekretu berriaren esparruan gauzatuko dira. Ekintza horiek balio erantsi handia dute programazio osoan, enpresa eskatzaileen premietara egokitutako prestakuntza ematen delako eta langabezian dauden pertsoneri zuzeneko lan-aukera bat ematen zaielako.



1.- Izenburua

Lehentasunez langile langabeentzat diren prestakuntza-ekintzak

2.- Araua

82/2016 Dekretua, maiatzaren 31koa, Euskal Autonomia Erkidegoan Enplegurako Lanbide Heziketa arautzen duena.

2016ko ekitaldirako deialdia, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuaren Administrazio Kontseiluak 2016ko ekainaren 15eko bilkuran hartutako Erabakiaren bidez onartutakoa (2016ko ekainaren 16ko EHAA).

3.- Diru-laguntzen Programaren azalpen laburra eta helburuak

Enplegurako lanbide-heziketa enplegu-zerbitzu publikoek beren zerbitzuen barruan langileei eskaintzen dieten tresnetako bat da, erabakigarria inondik ere, haiei lan-merkatuan sartzen laguntzeko edo enplegarritasuna hobetzeko. Prestakuntza-ekintza hauei esker, ikasleek gaitasun profesionalak eta pertsonalak eskuratzen, hobetzen edo eguneratzen dituzte, hala badagokio lanekoak ez diren praktikak eginez esperientzia lortzen dute lanpostu batean, eta enpresei erakusten diete prestatu diren lanbide-profiletan lan egiteko gai direla.

Eskaintza honen beste helburu bat da langileek jasotako prestakuntza egiaztagarria izatea eta lortutako gaitasunak Profesionaltasun Ziurtagirien Euskal Erregistroan jasota egotea.

4.- Lortutako emaitzak, aurrekontu programarekin lotutako magnitudeak eta eragina gizartean

2016ko maiatzaren 31ko 2602 Ebazpenaren arabera, deialdi honen xede diren laguntzak finantzatzeko baliabide ekonomikoen zenbatekoa 38.569.908 eurokoa da; horietatik 23.141.944,8 euro 2016ko ordainketa-kredituari dagozkio, eta 15.427.963,2 euro 2017ko konpromiso-kredituari.

Helburu gisa ezarritako emaitzak:

Aurrekontua, 2016. urtean: 0

Prestakuntza-ekintzen kopurua: Prestakuntza-ekintzen kopuruari dagokionez ez da helbururik ezarri, bai ordea prestatu beharreko pertsonen kopuruari dagokionez.

Prestakuntza jasoko duten pertsonak: 16.939

Izandako emaitzak:

2016an gauzatutakoa: 15.796.931

Prestakuntza-ekintzen kopurua: 1.274 prestakuntza-ekintza eta 28 proiektu berezi.

Prestakuntza jasoko duten pertsonak: 21.669

Onartutako prestakuntza-ekintzei esker, parte-hartzaileen % 60k jaso du prestakuntza egiaztagarria, hau da, profesionaltasun-ziurtagiriekin lotutakoa. Prestakuntza egiaztagarri eta kualifikatzaile honek



lanpostu baten berezko zereginak egiteko aukera ematen du. Halaber, prestakuntza eman zaie lan-merkatura sartzeko zailtasun bereziak dituzten pertsonei, hala nola desgaitasuna dutenei eta laneratzeko zailtasunak eta kualifikazio txikia dituzten pertsonei. Azken horiek hizkuntzan eta matematiketan funtsezko gaitasunak bereganatzeko ikastaroak egin dituzte, prestakuntza egiaztagarria jaso ahal izateko beharrezkoa den baldintza betetzeko, bai eta gaitasun pertsonalak eta trebetasun sozialak garatzeko prestakuntza ere. Deialdi honen bidez, kontratazeko konpromisoa dakarten 53 prestakuntza-ekintza onartu dira; proiektu horietan 798 pertsona parte hartzen ari dira, eta gutxienez sei hilabeteko iraupena duten lanaldi osoko 404 lan-kontratu bideratu dira. Bestalde, 28 proiektu berezi onartu dira, Euskal Autonomia Erkidegoko beste administrazio publikoekin lankidetzan eta baterako finantzaketako egitasmoetan jarduteko prestakuntza emateko; guztira 1.863 pertsonak parte hartu dute proiektu horietan.



1.- Izenburua

HEZIBI programa – Gazteek prestakuntza eta lana aldizkatzea

2.- Araua

2016ko ekitaldirako baliabideen esleipena, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuaren Administrazio Kontseiluaren Erabakiaz onartua, zeinaren bidez argitara ematen baita Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketako sailburuaren eta Enplegu eta Gizarte Gaietako sailburuaren 2012ko urriaren 3ko Aginduan ezarritako laguntzen 2016ko ekitaldirako deialdia. Agindu horretan gazteek prestakuntza eta lana aldizkatzeko Hezibi Programaren oinarri arautzaileak ezartzen dira.

3.- Diru-laguntzen Programaren azalpen laburra eta helburuak

Lanbide-heziketa eta lana aldizkatzeko eredia. Lanbide-heziketako ikasleentzat eta gazte langabeentzat enpresen barruan enpleguari eta bestelako irakasbideei lotutako prestakuntza-ekintzak bultzatzea, enpresako lan-jarduera ordaindua eta profesionaltasun-ziurtagiri bat edo hasierako lanbide-heziketako titulu bat lortzeko ikasketak aldizkatuz gazte horien lanbide-gaitasunak hobetzeko, eta, era berean, enpresen premiak eta langileek eskuratutako gaitasunak uztartzen laguntzeko.

4.- Lortutako emaitzak, aurrekontu programarekin lotutako magnitudeak eta eragina gizartean

2016ko ekainaren 1eko 2445 Ebazpenaren arabera, deialdi honen xede diren laguntzak finantzatzeko baliabide ekonomikoen zenbatekoa 1.200.000 eurokoa da; horietatik 500.000 euro 2016ko aurrekontu arruntan jaso dira, eta 700.000 euro 2017rako adostutakoan.

Helburu gisa ezarritako emaitzak:

2016ko kreditua: 1.250.000 € (2016koa eta aurreko urteetan adostutakoa)

Lehenengo lan-esperientzia gazteentzat (pertsonek): 450

Izandako emaitzak:

2016an gauzatutakoa: 1.008.061 €

Lehenengo lan-esperientzia gazteentzat (pertsonek): 539 (423 gizon eta 116 emakume)

Prestakuntza dualak zuzeneko eragina du Lanbide Heziketako titulu bat edo profesionaltasun-ziurtagiri bat lortzeko ikasten ari diren gazteen enplegarritasunean. Izan ere, gazteak prestakuntza- eta ikaskuntza-kontratu baten bidez kontratatzen dituzte, eta horrek abantaila ugari dakarzikie hala enpresei nola langileei.



1.- Izenburua

HOBETUZ. Lehentasunez Euskal Autonomia Erkidegoko langile landunentzat diren enplegurako prestakuntzako diru-laguntzen 2016ko ekitaldirako deialdia

2.- Araua

2016ko ekitaldirako baliabideen esleipena, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuaren Administrazio Kontseiluak 2015eko abenduaren 30ean hartutako Erabakiaz onartua, zeinaren bidez argitara ematen baita lehentasunez Euskal Autonomia Erkidegoko langile landunentzat diren enplegurako prestakuntzako diru-laguntzen 2016ko ekitaldirako deialdia.

3.- Diru-laguntzen Programaren azalpen laburra eta helburuak

Enplegurako lanbide-heziketako azpizistemenaren prestakuntza-ekimenaren helburua, nagusiki, landunei prestakuntza-ekintzak eskaintzea da, maila indibidualean gaitasunak eta kualifikazioa hobetu ditzaten edo birkualifikatu daitezten. Pertsona landunekin batera, deialdi honetan jasotako ekintzetan parte hartu ahal izango dute Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuan enplegu-eskatzailer gisa izena emandako langile langabeek; azken horiek ezingo dira izan plan horren barruan prestakuntza jasotzen hasten direnen % 40 baino gehiago. Ekimen honen bidez biztanleria aktiboaren bizitza osoan zeharreko enplegarritasuna eta prestakuntza hobetu nahi dira eta, aldi berean, enpresen produktibitatea eta lehiakortasuna sustatu.

4.- Lortutako emaitzak, aurrekontu programarekin lotutako magnitudeak eta eragina gizartean

2015eko abenduaren 30eko 5530 Ebazpenaren arabera, deialdi honen xede diren laguntzak finantzatzeko baliabide ekonomikoen zenbatekoa 16.900.000 eurokoa da; horietatik 8.450.000 euro 2016ko aurrekontu arruntean jaso dira, eta 8.450.000 euro 2017rako adostutakoan.

Helburu gisa ezarritako emaitzak:

2016ko kreditua: 12.750.000 € (10.600.000 € eta aurreko urteetan adostutako kreditua)

2016ko kreditu-egitura: 2.250.000 €

Ikastaro-kopurua:

Ikasle-kopurua:

Izandako emaitzak:

2016an gauzatutakoa: 10.600.000 €

2016ko kreditu-egitura: 2.250.000 €

Ikastaro-kopurua: : 2.847

Ikasle-kopurua: 25.806

Lanbide-heziketako sisteman, lehentasunez pertsona landunentzat den prestakuntza, oro har, haien heziketan eragin handiena duen ekimenetako bat da; gainera, pertsona langabeek ere parte



hartu ahal izango dute prestakuntza horretan. Prestakuntza hau baliagarria da pertsonen gaitasunak –hala kualifikatzaileak nola zeharkakoak– hobetzeko, eta, bestalde, profesionaltasun-ziurtagiri bat lortuta, prestakuntza egiaztatzea ahalbidetzen du. Programaren gizarte-eragina nabarmena da, pertsona landunei zein langabeei prestakuntza jasotzeko aukera ematen dielako eta lanpostuan behar diren lanbide-gaitasunak hobetzea lortzen duelako.



1.- Izenburua

HOBETUZ. Euskal Autonomia Erkidegoko enpresek garatzen dituzten prestakuntza-ekintza estrategikoetarako diru-laguntzen 2016ko ekitaldirako deialdia

2.- Araua

2016ko ekitaldirako baliabideen esleipena, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuaren Administrazio Kontseiluak 2016ko irailaren 7an hartutako Erabakiaz onartua, zeinaren bidez argitara ematen baita Euskal Autonomia Erkidegoko enpresek garatzen dituzten prestakuntza-ekintza estrategikoetarako diru-laguntzen 2016ko ekitaldirako deialdia.

3.- Diru-laguntzen Programaren azalpen laburra eta helburuak

Deialdi honen xedea da Euskal Autonomia Erkidegoko enpresek beren langileen gaitasun eta kualifikazioak hobetzeko programaturiko prestakuntza-ekintzak (prestakuntzako estrategia-ekintzak) garatzeko laguntza ekonomikoen 2016. urterako deialdia egitea.

Estrategia-ekintzak dira enpresaren proiektuari zuzenean lotuta egonik premien diagnostiko batean edo antzeko dokumentu batean, aurkezturiko ekintzen eta horiek hartuko dituzten langileen lehentasunaren adierazgarri den batean, jasagarriak direnak.

4.- Lortutako emaitzak, aurrekontu programarekin lotutako magnitudeak eta eragina gizartean

2016ko irailaren 8ko 3929 Ebazpenaren arabera, deialdi honen xede diren laguntzak finantzatzeko baliabide ekonomikoen zenbatekoa 4.300.000 eurokoa da; horietatik 2.150.000 euro 2016ko aurrekontu arruntean jaso dira, eta 2.150.000 euro 2017rako adostutakoan.

Helburu gisa ezarritako emaitzak:

2016ko kreditua: 2.150.000 €

Ikastaro-kopurua:

Ikasle kopurua:

Izandako emaitzak:

2016an gauzatutakoa: Gauzatzeari buruzko daturik ez dago. 351 espediente onartu dira, eta horien prestakuntza-ekintzak 2017ko uztailaren 31 baino lehen gauzatu behar dira.

Ikastaro-kopurua:

Ikasle kopurua:

Enpresentzako ekintza estrategikoek eragin positiboa dute diru-laguntzak eskatzen dituzten enpresetan lanean ari diren pertsonen prestakuntzan. Hain zuzen, ematen den prestakuntzaren bidez enpresak zehaztutako prestakuntza-helburuak bete nahi dira. Langileak jasotzen duen prestakuntzari esker, bere lana hobeto egin ahal izango du, eta hobeto egokituko da enpresak bere eguneratze-prozesuan eta produkzioaren bilakaeran egin behar dituen teknologia- eta prozesu-aldaketetara.





1.- Izenburua

Diru-sarrerak bermatzeko errenta eta etxebizitzarako prestazio osagarria

2.- Araua

- 18/2008 Legea, abenduaren 23koa, Gizarteratzeko eta Diru Sarrerak Bermatzekoa.
- 147/2010 Dekretua, maiatzaren 25ekoa, Diru Sarrerak Bermatzeko Errentari buruzkoa.
- 2/2010 Dekretua, urtarrilaren 12koa, Etxebizitzako Gastuetarako Prestazio Osagarriari buruzkoa.
- Agindua, 2001eko otsailaren 14koa, oinarrizko errentaren titularrentzat eta gizarte-larrialdietarako laguntzen onuradunentzat lanean hasteko pizgarriak ezartzeko dena.
- 4/2011 Legea, azaroaren 24koa, Gizarteratzeko eta Diru Sarrerak Bermatzeko Legea aldatzen duena.

3.- Diru-laguntzen Programaren azalpen laburra eta helburuak

Diru-sarrerak bermatzeko errenta aldizkako prestazio bat da, baita izaera ekonomikoa duen eskubide subjektiboa ere. Bizikidetzako unitateko pertsona jakin batzuek jasotzen dute, oinarrizko beharriaz lotuta dauden gastuak eta laneratzeko edo gizarteratzeko prozesu bati lotuta dauden gastuak ordaintzeko diru-sarrera nahiko ez duten horiei, hain zuzen.

Etxebizitzarako prestazio osagarria aldizkako prestazio ekonomikoa da, Diru-sarrerak Bermatzeko Errenta osatzeko eraturakoa. Etxebizitzaren edo ohiko bizitokiaren alokairu-gastuak ordaintzera bideratzen da, alokairuaren edozein modalitatetan, hots, errentamendua, azpierrementamendua, beste batzuekin batera egindako errentamendua, ostatu hartzea eta gelen alokairua.

4.- Lortutako emaitzak, aurrekontu programarekin lotutako magnitudeak eta eragina gizartean

Aurreikusitako emaitzak:

2016ko kreditua DSBERako eta Etxebizitzarako Prestazio Osagarriako: 492.400.000 €
DSBE / Etxebizitzarako PO prozeduretako ebazpenak: 80.000

Benetako emaitzak:

2016ko betearazpena: 492.368.343 €
DSBEko espedienteak/titularrak, batez beste: 64.799
Etxebizitzarako POko espedienteak/titularrak, batez beste: 29.721
Onuradunak, batez beste: 116.804

EAEko gizarteko kolektibo ahulenak babesteko programa bat da, eta bete da helburua: 2016. urtean zehar 65.000 familia babestu dira.



1.- Izenburua

Euskal enpresek kanpoan dituzten lantokietan 35 urtetik gorako langabeak kontratatzea

2.- Araua

Ebazpena, 2015eko abenduaren 30ekoa, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuko zuzendari nagusiarena, zeinaren bidez iragartzen baita euskal enpresen kanpoko lantokietan 35 urtetik gorako langabeak kontratatzeko 2016ko laguntzen deialdia (2015eko abenduaren 31ko EHAAAn argitaratua).

3.- Diru-laguntzen Programaren azalpen laburra eta helburuak

EAEn egoitza duten enpresek haien nazioartekotze-prozesuei lotutako enpleguetan prestakuntza eta/edo lan-esperientzia duten 35 urtetik gorako langabeak kanpoko lanpostuetan kontratatzeko diru-laguntzak arautzea, betiere enpresa horiek kanpoan lantokiak, partaidetutako enpresak edo enpresa-talde bereko beste enpresa batzuk badituzte, edo kanpoan kokatutako enpresekin lankidetzaz hitzarmenak edo zerbitzu emateko kontratuak badituzte. Kontratuek gutxienez 12 hilabeteko iraupena izango dute, eta, horietatik, 6 hilabetez kanpoan kokatutako lantokietan lan egin beharko da. Kontratuak lanaldi osoak dira.

Helburuak: 35 urtetik gorako pertsonen lan-aukerak sustatzea eta hobetzea, eta euskal ekonomiaren lehiakortasuna eta lan-merkatuaren kalitatea hobetzen laguntzea.

4.- Lortutako emaitzak, aurrekontu programarekin lotutako magnitudeak eta eragina gizartean

Deialdi honetan araututako diru-laguntzak finantzatzeko baliabide ekonomikoen zenbatekoa 1.525.000 eurokoa da guztira; horietatik 1.220.000 euro 2016ko kreditu arruntean jaso dira, eta 305.000 euro 2017rako konpromiso-kredituan.

Helburu gisa ezarritako emaitzak:

Aurrekontua (2016ko kreditua): 1.220.000 €

35 urtetik gorakoentzako kontratuak: 36

Enpresa parte-hartzaileak: 20

Izandako emaitzak:

Gauzatutako aurrekontua: 187.027 € 233.784, 11 €

35 urtetik gorakoentzat diruz lagundutako kontratuak: 6

Diruz lagundutako enpresak: 6

Lortutako emaitzak:

- Aurkeztutako eskaerak: 13 enpresa eta 20 lanpostu



- Ezetsitako eskaerak: 5 enpresa eta 10 lanpostu
- Ebazpenaren ondorengo erabateko uko egiteak: bi enpresa eta hiru lanpostu
- Ebazpenaren ondorengo uko egite partzialak: enpresa bat eta lanpostu bat
- Azken onuradunak: 6 enpresa eta 6 lanpostu

Hasieran aurkeztutako enpresa- eta lanpostu-eskaeren kopurua deialdiaren helburuetatik hurbil bazegoen ere, eskaera horietako dezente ezetsiak izan dira ezarritako baldintzak ez betetzeagatik, eta ebazpenaren ondorengo uko egiteak ere izan dira. Horrek guztiak eragin handia izan du azken emaitzetan.

Uko egiteak izan dira hautagai egokiak ez aurkitzeagatik (bi lanpostu) eta bisa lortzeko zailtasunengatik (bi lanpostu).

Programak baliagarri izaten jarraitzen du, deialdi honen helburuak baitira, alde batetik, 35 urte edo gehiagoko pertsonen lan-aukerak sustatzea eta hobetzea, horiek lanean hasi eta finkatzea bultzatuz, eta, bestetik, teknikoki eta profesionalki prestatuta dauden pertsonak behar dituzten enpresei beren nazioartekotze-prozesuan laguntzea.



1.- Izenburua

Euskal enpresek kanpoan dituzten lantokietan gazte langabeak praktikak egiteko kontratatzea

2.- Araua

Ebazpena, 2015eko abenduaren 30ekoa, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuko zuzendari nagusiarena, zeinaren bidez iragartzen baita euskal enpresen kanpoko lantokietan gazte langabeak praktikak egiteko kontratatzeko 2016ko laguntzen deialdia (2015eko abenduaren 31ko EHAA n argitaratua).

3.- Diru-laguntzen Programaren azalpen laburra eta helburuak

Azalpena: EAEn egoitza duten enpresek titulua edo prestakuntza duten baina langabe dauden edo beren tituluekin lotutako lan-esperientziarik ez duten 34 urte edo gutxiagoko pertsonak praktikaldiko kontratu bidez kanpoan lan egiteko kontratatzeko diru-laguntzak arautzea, betiere enpresa horiek kanpoan lantokiak, partaidetutako enpresak edo enpresa-talde bereko beste enpresa batzuk badituzte, edo kanpoan kokatutako enpresekin lankidetzaz hitzarmenak edo zerbitzu emateko kontratuak badituzte. Kontratuak gutxienez 12 hilabeteko iraupena izango dute, eta horietatik 9 hilabetez kanpoan kokatutako lantokietan lan egin beharko da, edo gutxienez 7 hilabetez bisa edo administrazio-baimena lortzeko zailtasunik balego. Kontratuak lanaldi osoak dira.

Helburuak: Pertsona gazteen laneratzea erraztea, haiek lan-esperientzia har dezaten bultzatzea eta gazteen prestakuntza eta talentua sustatzea, eta teknikoki eta profesionalki prestatuta dauden pertsonak behar dituzten enpresei beren nazioartekotze-prozesuan laguntzea.

4.- Lortutako emaitzak, aurrekontu programarekin lotutako magnitudeak eta eragina gizartean

Deialdi honetan araututako diru-laguntzak finantzatzeko baliabide ekonomikoen zenbatekoa 3.050.000 eurokoa da guztira; horietatik 2.440.000 euro 2016ko aurrekontu arruntean jaso dira, eta 610.000 euro 2017rako konpromiso-aurrekontuan.

Helburu gisa ezarritako emaitzak:

Aurrekontua (2016ko kreditua): 2.440.000 €

Gazteei egin beharreko kontratuak: 125

Enpresa parte-hartzaileak: 45

Izandako emaitzak:

Gauzatutako aurrekontua: 459.265 € 543.219,08 €

Diruz lagundutako gazteentzako kontratuak: 20



Diruz lagundutako enpresak: 16

Emaitzen azterketa, baliagarritasuna eta gizarte-eragina:

Lortutako emaitzak:

- Aurkeztutako eskaerak: 26 enpresa eta 38 lanpostu
- Ebazpenaren ondorengo uko egiteak: Bi enpresa eta hiru lanpostu (eskaerari erabat uko egitea) eta enpresa bat eta lanpostu bat (eskaeraren uko egite partziala).
- Ezetsitako eskaerak: 3 enpresa eta 3 lanpostu
- Ebazpenaren ondorengo erabateko uko egiteak: 5 enpresa eta 6 lanpostu
- Ebazpenaren ondorengo uko egite partzialak: 3 enpresa (1 bi eskaera egindakoa) eta 5 lanpostu
- Azken onuradunak: 16 enpresa eta 20 lanpostu

Deialdi honek beste 11 kontratu diruz laguntzeko aukera ematen zuen, baina enpresek lanpostuei uko egin zieten hautagai egokiak aurkitu ez zituztelako, batez ere eskatutako hizkuntza-mailarekin izan zituzten zailtasunegatik (7 lanpostu), lanpostua zegoen herrialdearengatik (2 lanpostu) edo bi arrazoi horiengatik (2 lanpostu). Gainera, enpresa askok ez dute laguntza lortzeko aukerarik izan *minimis* erregelamenduan ezarritako muga gainditzen zutelako.

Programak baliagarri izaten jarraitzen du, kontuan izanik deialdi honen helburua gazteen enplegarritasuna hobetzea dela, atzerriko lantoki batean egonaldia eginda beren prestakuntzarekin bat datorren lehen lanbide-esperientzia eskainiz, gerora enpresa kontratatzaileetan edo nazioartera hedatutako beste batzuetan lanean jarraitu ahal izan dezaten.



1.- Izenburua

Lagundutako enplegua, desgaitasuna duten pertsonak lan-merkatu arruntean txertatzeko neurri gisa

2.- Araua

Ebazpena, 2015eko abenduaren 30ekoa, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuko zuzendari nagusiarena, zeinaren bidez iragartzen baita, desgaitasuna duten pertsonak lan-merkatu arruntean txertatzeko neurri gisa, enplegu lagundurako jarduerak garatzeko 2016ko laguntzen deialdia (2015eko abenduaren 31ko EHAAAn argitaratua).

3.- Diru-laguntzen Programaren azalpen laburra eta helburuak

Azalpena: Enplegu lagundurako jarduerentzako laguntzak eta pizgarriak arautzea. Izan ere, enplegu lagundua tresna egokia da desgaitasuna duten eta laneratzeko zailtasun handienak dituzten pertsonak lan-merkatu arruntean areago txertatzeko, bai eta enpresei laguntzeko ere, pertsona kontratatu aurretik nahiz hura lanean hasi ondoren. Horretarako, hainbat jarduera integratu garatzen dituzte enplegu lagundurako unitateetako profesional espezializatuek, hau da, prospekziogileek eta lan-prestatzaileek.

Helburua: Enplegu lagundurako unitateen jarduna diruz laguntzeko, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuan enplegu-eskatzaile gisa inskribatuta dauden eta laneratzeko zailtasun handienak dituzten pertsonentzat lan-aukerak bilatzeko eta haiei laneratzeko laguntzeko konpromisoa bete eta horri lotutako helburuak lortu beharko dira. Horrenbestez, lehentasuna emango zaio pertsona hauek laneratzeari:

- Desgaitasun intelektuala, gaixotasun mentala edo garun-paralisia duten pertsonak, % 33ko edo gehiagoko desgaitasun-maila onartua dutenak.
- Desgaitasun fisiko edo sensoriala duten pertsonak, % 65eko edo gehiagoko desgaitasun-maila onartua dutenak; edo pertsona gorra edo entzuteko desgaitasuna dutenak, % 33ko edo gehiagoko desgaitasun-maila onartua dutenak.

Desgaitasuna duten emakumeen laneratzeari bultzatzeko, diru-laguntzaren zenbatekoa % 10 handiagoa izango da kontratatutako pertsona emakumea denean.

Orobat, programa honen helburu dira, alde batetik, Enplegu Zentro Berezietatik datozen eta definitutako desgaitasun-mota bat duten langileei lan-merkatu arruntean sartzen laguntzea, eta, bestetik, deialdi honetan sartzen ez diren aurreko ekitaldietan izandako laneratzeari jarraipena egitea, eta horietan jardundako pertsonari eta enpresei laguntzea.



4.- Lortutako emaitzak, aurrekontu programarekin lotutako magnitudeak eta eragina gizartean

Deialdi honetan araututako diru-laguntzak finantzatzeko baliabide ekonomikoen zenbatekoa 850.000 eurokoa da guztira; horietatik 425.000 euro 2016ko aurrekontu arruntean jaso dira, eta 425.000 euro 2017rako konpromiso-aurrekontuan.

Helburu gisa ezarritako emaitzak:

Aurrekontua (2016ko kreditua): 850.000 € (2015 eta aurreko urteetan adostutakoa)

Enplegu lagunduko taldeak: 8

Desgaitasuna duten pertsona kontratatuen kopurua: 46

Izandako emaitzak:

Gaur-gaurkoz, justifikaziozko memoriak berrikusten ari dira.

Laguntzak emateko ebazpenetan ezarri ziren helburuak erantsi dira.

2016an gauzatutako aurrekontua: 732.013 € (425.000 € 2016ko aurrekontuan eta 307.013 € 2015eko konpromiso-aurrekontuan)797.923,06 €

Enplegu lagunduko taldeak: 8

Desgaitasuna duten pertsona kontratatuen kopurua: 63

Laneratzearen jarraipena egiten ari zaien pertsonak: 121

Enplegu-aukeren prospekzioa: 1995

2014ko deialdian enpresa arruntetan kontratatutako pertsonen lan-bilakaeraren jarraipena egin zen, zehazki enplegu lagundurako deialdiaren babesean egindako lan-kontratuak bukatu eta 6 eta 12 hilabete igaro ondoren, eta emaitzek deialdiaren eta haren helburuen eraginkortasuna berretsi dute. Enplegu lagundurako 2014ko deialdiari esker lan-merkatu arruntean sartutako 48 pertsonetatik 36k, hau da, % 75ek, lanean jarraitzen zuten deialdiari lotutako lan-kontratua amaitu eta urtebete igarota.

2015eko deialdiaren onuradunei dagokienez, enplegu lagundurako deialdiaren babesean egindako lan-kontratuak bukatu eta 6 hilabete igarota 24 pertsonak, hau da, guztizkoaren % 46k (24/52), lanean jarraitzen zuten, eta 10 pertsona langabezian zeuden; gainerako 18en jarraipenik ez da egin oraindik, ez baita bete deialdiaren babesean egindako lan-kontratuak bukatu ondorengo 6 hilabeteko epea. Beraz, enplegu lagundurako 2015eko deialdiaren babesean egindako lan-kontratuak bukatu ondorengo 6 hilabeteko epea bete duten laneratzeak soilik kontuan hartuz gero, % 46 hori % 71ra igoko litzateke (24/34).

Horrenbestez, emaitzak aztertu ondoren, deialdi honek betetzen du haren helburu nagusia; alegia, desgaitasuna duten eta laneratzeko zailtasun handiak dituzten langileak lan-merkatu arruntean kontratatu ditzaten eta beren jarduna antzeko lanpostuetan dauden gainerako pertsonak dituztenen



antzeko baldintzetan egin dezaten bultzatzea.

Horrez gain, programak betetzen du 1/2013 Legegintzako Errege Dekretuak, azaroaren 29koa, desgaitasuna duten pertsonen eskubideei eta haien gizarteratzeari buruzko lege orokorraren testu bategina onartzen duenak, ezarritako legegintza-mandatura, eta bereziki haren VI. kapituluko I. tituluan jasotakoa: administrazio publiko eskudunek sustatu egingo dituzte haiek lan-merkatuan dituzten enplegu-aukerak eta lanbidean gora egiteko aukerak, eta orobat sustatuko dute beharrezkoak diren laguntzak izan ditzaten enplegua bilatzeko, eskuratzeko, hari eusteko eta utzitako enplegura itzultzeko.